

IKASLEEN TXOKOA - Urumea Ikastola



Ibon Amatriain

'Eddi Aikau' txapelketara gonbidatu duten aurreneko europarra / III

ONINTZA NARBARTE, ITZIAR VELEZ, IBANE AIZPURUA ETA ELENA IRUIN



AINARA DANTZA ESKOLA
funkya, jazzta, balleta, sabeleko dantza... / II
SANDRA EXPOSITO ETA JANIRE ANAUT



IV / Urumea ikastolako irratia

MARIA TELLEZ

Egileen argazkia /IV

IV / Aldaketak, hizkuntz eskolako azterketan

ONINTZA NARBARTE, ITZIAR VELEZ, IBANE AIZPURUA ETA ELENA IRUIN

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

URUMEA IKASTOLA



Ainara dantza eskolako ikasleak.

Ainara eskolan dantza mota ugari aurki ditzakegu: funkya, jazz, balleta, sabeleko dantza...

Ainara Arrospide Arana, hogeita hamar urteko irundarrak Antziola kalean dantza eskola bat ireki du.

BALLETA, oso txikia zenean hasi zen dantzatzeko, lau urterekin, eta funkya handixeagoa zenean, hogeitau urterekin.

Bost titulu ditu ballet alorrean eta diploma ugari. Ainarak unibertsitatean egindako karrera bat du, baina dantza munduan lan egiten du. Berak gustoko duen zerbait da, gainera; suerte ona izan du eta aprobetxatzeko garaia da.

Bere ordutegia honako hau da: 15:00etatik 22:00-etara. Prezioa: 35-40 euro gutxi gora behera.

Dantza aukera ederra

Ainara dantza eskolan dantza mota ugari aurki ditzakegu: funky, jazz, ballet, sabeleko dantza, batuka eta latinoak.

Ainararen ustez, dantza mota bakoitzak teknika desberdina du. Bere hitzetan:

«Balletaren teknika, orekan eta diziplinan oinarritzen da nire ustez. Balleta ez da bakarrik bueltak edo behatz puntetan dantzatzea, baizik eta musika sentitzea eta horrekin interpretazio moduko bat egitea eszena tokian».

«Funky bestalde, teknikan, indarrean, azkartasunean eta koordinazioan

oinarritzen da».

«Hip-hopa, antzeko dantza bat da, prestakuntza fisiko zehatz bat behar du, egiten duten pertsonen bere gogo guztiarekin egiten dituzte mugimenduak».

«Batuka koreografia bat daka, pauso horiek eten gabeak dira, aerobika

nahastuz, nekagarria da eta ezin zara gelditu».

«Jazz-a umeentzako koreografia simple bat egitean oinarritzen da eta animazio piska bat sartuz».

Beste dantza mota guztiak, denbora pasa bezala ditu Ainarak eta beste irakasleek ematen dituzte.

«Balletaren teknika, orekan eta diziplinan oinarritzen da. Balleta da musika sentitzea eta horrekin interpretazio moduko bat egitea eszena tokian»

«Funky bestalde, teknikan, indarrean, azkartasunean eta koordinazioan oinarritzen da»

«Hip-hopa, antzeko dantza bat da, prestakuntza fisiko zehatz bat behar du, egiten duten pertsonen bere gogo guztiarekin egiten dituzte mugimenduak»

Dantzaren disfrutea

Ainarak asko disfrutatzen du dantzatzeko duen bakoitzean. Bere ustez deskonektatzeko modu hoberena da. Hernanin oso gustora dago, ez zaio batera inporta Irunen eskola ezin jarri izana, jendearekin eta tokiarekin oso gustora baitago. Festibalak egingo ditu talde guztiarekin Iruñan.

Ainara ezin da dantza mota batekin geratu; denak gustatzen zaizkio.

Asko gustatzen zaio irakastea, baina ikastea ere bai, bestela ezin da irakasle ona izan.

Adin guztietako jendea etor daiteke, badakizue, ANIMA ZAITEZTE!!!

SANDRA EXPOSITO
ETA JANIRE ANAUT
Urumea ikastola

ikasleen txokoa



Ibon Amatrian hernaniarra olatu erraldoia surfeatzen.

Ibon Amatriain, 'Eddi Aikau' txapelketara gonbidatu duten aurreneko europarra

SURFA duela urte askotako uretako kirol ospetsua da. Bertan, oreka handia izan behar da. Surfistak itsasertzetik urruntzen dira tabla arin batzuekin igeri egiten, olatuan igota bueltatzeko, tablaren gainean oreka mantenduz.

Edozein tabla mota erabili daiteke, baina lehiaketako tablak hiru egatz izaten dituzte azpiko aldean. Surfistak modu askotako mugimenduak erabiltzen dituzte. Epaileak puntuak ematen dizkiete surfeatzeko estiloarengatik, bertutearengatik, sinkronizazioarengatik eta olatuaren zailtasunarengatik.

Ibon Amatriain hernaniarra Surfilarri famatu baten adibiderik hurbilena Ibon Amatriaine-na da. Hernanin jaio zen, eta bere bizitza Zarautzen egin du surf egitera joaten zelako txikitatik. Lehengo urtean Billabong XXL txapelketako bost surfilarri onenen artean egon zen, Playa Gris-en hartu zuen olatuari esker, Mikel Agoteren laguntzaz. Orain dela zenbait hilabete olatu haundien *Eddi Aikau* Hawaiiko txapelketara gonbi-

datu zuten lehenengo europarra izanik, poztasun handiz hartu zuen berria: «Eddie Aikauera joatea aukera ikaragarria.

«Lehengo urtean Billabong XXL txapelketako bost surfilarri onenen artean egon zen Amatriain, Playa Grisen hartu zuen olatuari esker»

ria da, eta espero dut olatu onak egotea aukera hau ez galtzeko». Hala ere, zoritxarrez, ez dira kondizio onak izan maila hontako txapelketa egiteko, beraz, hurrengo urtera arte itxoin beharko du, berriz ere gonbidatzen badute.

Surfean ezinbestekoa da zenbait mugimendu jakitea olatuaren barnean ondo mugitze-ko. Hauek dira haipagarrienak:

-TAKE OFF: Surfistak egiten duten lehen maniobra da: bertan, eskuekin arraun egiteari uzten dio tablaren gainean jarrita dagoela.

-TUBOA: Tubo forma duten olatuen barnean surfeatzen datza. Maniobra honek garrantzi handia du bere zailtasunarengatik.

-AIREZKOA: Horrelaxe deitzen zaie airean egiten diren maniobra guztiei.

-360 : Olatuaren goialdera igo eta bertan, 360º-ko giroa ematean datza, bitartean olatua jaitzen dugularik.

ONINTZA NARBARTE, ITZIAR VELEZ, IBANE AIZPURUA ETA ELENA IRUIN
Urumea ikastola

-TUBOA: Tubo forma duten olatuen barnean surfeatzen datza. Maniobra honek garrantzi handia du bere zailtasunarengatik



Kelly Slater (1972, Florida, AEB) surfista famatua, 8 aldiz munduko txapeldun izana.

30

zenbakia

ikasleen txokoa

Urumea ikastolako irratia

URUMEA ikastolan irratia dago. Irratiak 107 FMn emititzen du eta hilabetero ematen dute. Ez dago data bat zehaztuta, baina gehienetan ostegun goizetan 09:00ak aldera izaten da. Saio gehienek ordu bat eta erdi irauten dute gutxi gorabehera.

IRRATI saioan lana aurkeztu behar duten ikasleak 09:00ak baino lehenago etorri behar izaten dute ikastolara. Urumea ikastolan dauden DBHko lehenengo eta bigarren mailako ikasleek egiten dituzte irratia saioak. Saioetan ikasleek denbora tarte batean egindako lan bat aurkezten dute. Lan horiek lau hizkuntzetan daude: gazteleraz, frantsesez, ingelesez eta euskaraz. Gelako ikasle batzuk gazteleraz eta frantsesez egiten dute eta besteek euskaraz eta ingelesez. Egokitzen zaien hurrengo saioan alde-rantziz egiten dute; frantsesez eta gazteleraz egin zutenek oraingoan euska-



Urumea ikastolako bi ikasle irratiko esatari lanetan.

raz eta ingelesez egingo dute; eta aurrekoan euskaraz eta ingelesez egin zutenek oraingoan frantsesez eta gazteleraz egingo

dute. Ikasle batek mahaia kontrolatzen du irakasle baten laguntzaz.

Irratiaren helburua ikasleak ondo pasatzea da eta

hizkuntza horiek ondo menperatzea.

MARIA TELLEZ
Urumea ikastola

Egileak: Urumea ikastolako ikasleak



Aldaketak, hizkuntz eskolako azterketan

LEHENGO urtean Hizkuntz Eskolako oinarriko azterketara aurkezteko aukera izan genuen, eta halaxe egin genuen. Azterketa hau aurrera ateratzen bagenuen hurrengo urtean goi zikloko azterketa egin genezakeen; hau da, hamabost urterekin EGAREN baliokidea zen titulua eskuratzea.

AURTEN, goi zikloko azterketa ateratzeko asmoarekin Urumea Ikastolan eskaintzen zizkiguten euskarazko klaseetara apuntatu ginen kurtso hasieran. Duela gutxi, ordea, euskarazko irakasleak Hizkuntza Eskolan egin diren aldaketa batzuen berri eman zigun: gutxienezko adina hamasei urte direla, bi azterketen ordez hiru direla, eta hori gutxi balitz, Hizkuntz eskolako goi zikloa ez dela EGAREN baliokidea, maila baxuagokoa baizik. Aldaketa hauetan ez gaituzte kontutan hartu, titulua erdi aterarekin geratu baigara, azterketa eta klaseak ordaindu ondoren.

Hizkuntza Eskolako en-jarrerarekin lortu duten gauza bakarra beraien azterketa egin beharrean zuzenean EGA titulua ateratzea da.

ONINTZA NARBARTE, ITZIAR VELEZ, IBANE AIZPURUA ETA ELENA IRUIN
Urumea ikastola